

Gizon xumea, bizitza luzea

[Egile ezezaguna]

Aiurri, Zenbaki berezia 1, 1997: 4-41.

Herri txiki eta polit hura...

Martin Ugalde Andoainen jaio zen orain dela 76 urte. Herrian eman zituen lehen urteak, harik eta gerrak bertatik bota zuen arte. Harrez gero, han eta hemen, kanpoan bizitu behar izan du; baina ez du hargatik, bere herria ahaztu.

1921eko San Martin egunean ikusi zuen lehengoz argia Martin Ugaldek. Bere jaiotza aktak dioenez, goizaldeko laurak ziren Kale Berrian, Bastero inguruan, bere ama erditu zenean. Aitak azkar batean erabaki zuen lehenengo semeari zein izen jarri: Andoni. Eta San Martin egunez jaio zelako, Martin. Martin Andoni, beraz. Hala jo zuen elizara semea inskribitzera. Baina hara iritsi ordurako jarri zizkioten arazoak: Andoni ezin onartuko zutela, Antonio jarri beharko ziola... Gogor egin zuen aitak, ez zuen etsi. Herrian zeresan ugari eman omen zituen gertakari hark, eskandalu handi samarra sortu omen zen.

Agian horregatik bataiatu zuten Martin *subconditione*. Ohi zenez, jaioberria gaixorik edo hiltzeko arriskuan zela ikusiz gero etxekoek berehala ematen zioten bataioa (badaezpada beste bizitzarako prest egon zedin). Haurrak bizirik jarraituz gero baina, elizan osatzen zuten sakramentua *subconditione*; hau da, elizkizun guztia egiten zen, haurra urez bustitzea izan ezik Baina Martin osasuntsu jaiotako haurra zen; arazoa politikoa zen. *Considerándose dudoso el bautismo recibido en casa*, azkenean azaroaren 15ean eman zion Elizak Martin Andoni (Antonio) izena –hala dago bilduta bataio aktan–.

Pello eta Anttoni gurasoen lehen semea izan zen Martin. Handik urte t'erdira iritsi zen Joseba anaia.

Lehen letrak eta zenbakiak karteroaneakoaren ondoan zegoen eskolan ikasi zituen Martinek: "Bat, bi, hiru..." esaten zuen bitartean gorputzari atzera eta aurrera eraginez. Batuketak eta kenketak nola egiten ziren ikasi aurretik, ordea aldatu ziren etxez. Trasteak hartu eta Zumeara joan ziren bizitzera, Lasterregi berri etxera, tranbiako zentrala zegoeneko aurrera –oraindik han da etxea, Xaxi tabernako hura da–. Martinen aita Lasterregi izeneko etxean jaioa zen, eta hura bota ondoren eraiki zutenari jarri zioten Lasterregi Berri izena. Han hazi zen Martin anaia Josebarekin batera.

Aitak haroztegia zuen etxepean

Aitak etxepean zuen tailerra. Egurrezko pertxak eta pertxeroak egiten zituen Pellok, gero kapitalean eta Espainia osoan saltzeko. Korrikalari ona zen Martinen aita, eta Fortuna

klubarekin haruntza eta honuntza lasterketetara joaten zenean eramaten omen zuen maleta bat pertxaz betea hango edo hemengo dendariei saltzeko. Hala ateratzen zuen familia aurrera.

Martin koskortzen hasi zenerako aitak tailerra lekuz aldatzea erabaki zuen. Izan ere, uholdeak ziren baikoitzean erabat hondatzen baitzizkion urak makina guztiak. Hala bada, tailerra egin zuen gizonari esan omen zion Pellok berria jartzeko urak iritsiko ez ziren toki batean. Horretarako, uholde handienak izan ziren garaian ura noraino heldu zen neurtu zuten. Andoainen bazen esaera bat, esaten zuena urak sekula ez zirela iristen Santa Krutzeko Kristoaren oinetatik gora. Eta erreferentzia zientifiko hura hartuta erabaki zuten makinak tailer zaharraren parean egin zuten etxe berrian jartzea –orain Xaxiko pasabidea den horren ezker aldean–. Behin, ordea, hasi ziren urak gora eta gora egiten; Pellok amorru bizian begiratzen zion uholdeari, ezer egin ezinean. "Jobar!, Kristoren hankak eta, gora!, potroak eta, gora! eta denak gora!", bota omen zuen barruko haserreari ezin eutsita. Aidean pasa zuten urek Santa Krutzen hartutako neurri hura.

Pellori buruzko anekdotak ezagunak dituzte herritar askok –guri Xabin Mujikak kontatu dizkigu zenbait belarrira–. Larunbata iritsi eta langileei -bazituen sei edo- pagatu ezin arduratzen zuen hura. Dirua lortzeko zirenak eta ez zirenak egiten omen zituen. Behin Donostiara joan da eta sartu da ferreteri batean; "aizu pertxak..." eskaini omen dio saltzaileari, eta hark: "ez, baditugu". Eta beste batera, eta "ez, badauzkat nahikoak"... eta ezin saldu. Etsita, ikusi du kaiko emakume ezagun bat eta esan dio: "aizu, joan zaitez holako ferreterira eta esaiozu halako hotelak ehun pertxa eskatu dizkizula. Nik hemen itxarongo dizut eta duro zilarra emango dizut". Joan da emakumea halako hotelak halako ehun pertxa eskatu dizkiola esanez. "Aiba!", dendariak, "oraintxe izan da saltzailea. Badauzkat baino oso gutxi. Aber ikusten duzun gizona...". Pellok pertxak hartu, saldu eta diruarekin etxera!

Baina lana ezezik, Andoain eta andoaindarren alde asko egindakoa dugu Martinen aita. Jaiak, sega apustuak eta bestelakoak antolatzen aritzen zen batean eta bestean, andoaindarren gozamenerako. Udaletxean zinegotzi zela ere, herritarren alde egiten omen zuen beti. Pedrotxo nobelan Martinek idatzia du nola ospitalean bazkaritan ura besterik ez zela izaten ikusita, Pellok ardoa emateko dirua eman zien mojei.

Bera zen, baita ere, Andoaingo dantzari txikien irakasle. Nemesio Fernandezekin batera, Trianon zaharrean biltzen zituen haurrak entsaioan, horien artean Martin eta Joseba semeak. Aita Pello Billabonan ere aritzen zen gaztetxoei dantzan nola egin erakusten. Askotan lanagatik-eta kanpora joan behar izaten zuenez, Martin bera bidaltzen zuen hara irakasle lanetan ari zedin. Hamar urte zituela egunero joaten zen Billabonara tranbian. Amasako San Martinetan dantzatu zuten lehendabizikoz.

Andoain, erabat herri euskalduna

Aita bezala, orduko Andoain oso gogoan du Martinek. Herri txiki eta polit-polita zen artean, erabat euskalduna zena. Denek zekiten euskaraz. Beste erremediorik ezean, kanpotik etorritakoek ere ikasi behar izaten zuten gure hizkuntzan mintzatzeko. Martinek

eta lagunek sekula ez zuten kalean erdaraz egiten. Gazteleraz hitz egin eta idazten eskolan ikasi zuten; dotrina besterik ez zieten euskaraz irakasten.

Martin Notre Dameko mojetan eta Tolosa maisuaren herri eskolan aritu zen eskolan, harik eta La Salleko praileak Andoainera etorri ziren arte. Don Joakin Larretak egindako fundazioaren bidez Basteron, merkatu aurrean, jarri zituzten bi gradu. Han aurkitu zuen Martinek benetako eskola eratua eta han ikasi zituen ikasi beharrekoak hamalau urte bete arte. Orduan lanerako behar zuela esan zion aitak, tailerrean lagundu behar ziola. Horren berri jaso ondoan Jose Maria Iciar La Salleko zuzendariak Pellorengana joatea erabaki zuen, semeak ikasteko balio zuela eta batxilergoa ikasteko baimena eman ziezaion. Baiezkoa eman zuen aitak.

Martinen asmoak, baina, errotik zapuztu zituen gerrak, gerra zeken eta beltz hark.

Gerra ankerra

Gerrak, gerra anker hark, markatutako historia da Martinena eta bere familiarena. Gerrak bota zituen herritik, gerrak elkarrengandik banandu, eta gerrak aberritik urrundu. Bizipen krudel hura, kalbario hura, sekula ez dute ahaztuko garai hartakoek; ez behintzat Martinek.

1936ko abuztuan Andoain okupatu egin zuten nazionalak. Aita, Pello Ugalde, EAJko zinegotzia zen Pablo Egibar alkatearen meneko Udalean; ihes egin beharra zegoen. Martinek 15 urte besterik ez zituen, Joseba anaia txikiagoak, oraindik 14 betetzeke. Hernaniko lehengusuenean hartu zuten babesa lehenik, Donostian gero eta Zarautzen ondoren. Nazionalak aurrera egin ahala, Bizkaia alderantza jo behar izan zuten. Mundaka aldean ibili ziren aurrena eta handik iritsi ziren Bilbora. Bizkaiko hiriburuko Henao kalean jarri zuen Pellok bulegoa, Egibar alkatea atzerrian zela eta, Martinen aitak hartu baitzuen bere gain Udalaren ardura. Errepresentazio lanak egin zituzten bulego hartatik Pello Ugaldek, Lopez de Gereño izeneko zinegotziak eta Inazio Tolosa sekretarioak.

Ez ziren hilabete asko pasa, ordea, Bilbo ere nazionalen eskuetan erori zenerako. Ugaldetarrentzat une latzak izan ziren oso. Gernika bonbardatu berria, Bilbo hartua... Aitak bi semeak nahi zituen atera infernu hartatik, baina Martin koxkortuegia zegoen artean atzerrira bidaltzeko: hamalau urte arterako haurrak besterik ez zituzten ebakuatu, horien artean Joseba anaia. Ingalaterrara bidali nahi zuen aitak, baina Sobiet Batasunera joan zen azkenean. Ugaldetarrek bazuten lehengusu bat ihesean Errusiara joan zena eta 1934ko Urriko Iraultzan borrokan aritu zena. Aita harekin gogoratu zen, eta leku ezaguna zelakoan, haraxe bidali zuen Joseba. Zazpi urte luze igaro ziren haren berri jakin zuten arte; hamar urte luze elkar ikusi zuten arte.

Ihesean aitarengandik banandu, galdu, egin ziren senideak. Santanderrera joan ziren Martin eta ama; aita auskalo nora. Hiru egun eta hiru gau oso igaro zituzten hiri hartan nazionalak inguruak bonbardatzen zituzten bitartean.

Azkenean lortu zuten, New Castle itsasontziko bodegan sartuta, Frantzia aldera joatea. Chateau Chinon-era (Nièvre) iritsi ziren. Urtebete egin zuen Martinek herri hartako familia baten etxean.

Chateau Chinon-era iritsi eta astebetara jakin zuten aitaak ozta-ozta ihes egitea lortu zuela Asturiasko Musel portutik. Bartzelona aldean zebilen eta handik dei egin zion amari elkartu zitezten. Hala egin zuen amak. Andoaingo iheslariei aterpea eta jatekoa eman eta Udalaren izenean herritarrak erreklamatzeko aritu ziren handik. Nazionalek Andoain okupatu eta ihesean joan behar izan zutenean, aitaak gorde zuen Udaleko zigilua errepublikari leialak zirela erakusten zuena. (Handik urte askotara, aitaak Martini eman zion zigilua poltsa berde batean bildua, berriz ere Euskal Herrira ekar zezan).

Gerra amaitzeko zegoen, tropa frankistek etenik gabe egiten zuten aurrera. Bartzelonan sartu zirenean aita Lleidan zen. Ezinezkoa zen amaren bila berriz ere hara itzultzea; bakarrik egin behar izan zuen ihes Frantziara. Argelés sur Mer-eko errefuxiatu gunera iritsi zen. Handik gutxira, Capbreton-en lortu zuen bizilekua, Landetan.

Bienbitartean, ama Andoainera itzuli zen, bakarrik. Guztia hondatuta topatu zuen: etxerik ez eta aitaren tailerra beste bati emana. Senideen etxean hartu behar izan zuen aterpea.

Aitaren agurra

Ordurako errepublikarrek galdua zuten gerra eta aitari Amerikara joateko ideia ari zitzaion bueltaka buruan.

Senideak ere eraman nahi zituen berarekin. Ama Andoaingorik ateratzea, baina, ezinezkoa zen. Martin berriz Donibane Garazira etorria zen erbesteko Eusko Jaurlaritzak egindako gestioei esker. Ikasten ari zen buru-belarri, gustura. On Joxe Miel Barandiran, John Zabalo, Felix Dorronsoro...sonatuak zituen irakasle eta haiekin jarraitu nahi zuen ikasten. Aitari, bada, bakarrik joatea beste irtenbiderik ez zitzaion geratu, handik gutxira senideak elkartzeko zituen esperantza beti ere.

Venezuela Amerikan zegoela besterik ez zekien Pellok; Martinek apur bat gehiago: txikitari jaten zuen txokolaterearen paperean agertzen zen haren berri, Venezuelako zaldun bigotedun bat agertzen baitzen marraztuta. Eskolako paretean zintzilik zegoen mapan ikasi zuen geroxeago herrialde hura geografikoki kokatzen.

Aita 1939ko udan abiatu zen Venezuelara, emaztea eta seme zaharrena Euskal Herrian utzita. Agurra hunkigarria izan zen oso, gogorra: aita eta Martin Bidasoaren alde batera, eta ama, Maria Ozaeta lagun zuela, bestera. Haiek karabinero bat zuten atzean eta Nafarroa aldera zihoazela itxuratu behar errekararen beste aldekoak zapiak agurtzen zituzten bitartean. Negar batean amaitu zuten guztiek.

Pello 1939ko abuztuaren 26an sartu zen Bretagne untzian. Handik bost egunetara, Alemaniak Polonia inbaditu ondoren, Frantzia eta Erresuma Batuak gerra deklaratu zuten. Hiru aste edo, Frantziako prentsak argitaratu zuen Bretagne hondoratu egin zutela alemaniarrek. Beranduago jakin zuten untxiari itzuleran egin ziotela eraso, eta aita onik zela Venezuelan.

Lehorretaratu bezain pronto lurrari musu eman omen zion Pellok, eta "Franco hil artean ez nauk itzuliko" agindu. –Diktadorea asko bizitu zen arren, Pellok bete zuen agindutakoa, eta hil aurreko hilabete t'erdia bakarrik egin zuen ostera Euskal Herrian–. Lehen une latzak gaudituta bere kontura lan egiten hasi zen, Andoainen zuen lanbide berean: egurrezko kaxak egiten zituen, gero garagardo botilak sartzeko erabil zitezen.

Alemanek atxilotu egin zuten Martin

1940an aitak Venezuelara joateko eskatu zion Martini, tramiteak egiten has zedila. Hala egin zuen Martinek Jaurlearitzak erbestean zituen ordezkarien bitartez. Horretan zela, baina, alemaniarrek okupatu egin zuten Frantzia. 1940ko maiatzean frankismotik ihesi zirenak atxilotu eta Gurs-eko kontzentrazio esparrura eraman zituzten, horien artean Martin bera. Pare bat hilabete egin zituen bertan beste milaka eta milaka atxilotuekin batera, baldintza penagarritan. Iñaki Azpiazu apaiz euskaldunari eskerrak atera zen Martin handik. Azpiazuk kontzentrazio-esparruko arduradunak konbentzitu egin baitzituen okupatutako lurretatik kanpora bidaiatzeko aukera zutenei irteten utzi ziezaieten. Hala lortu zuen Martinek handik ihes egin eta Donibane Garaziraino iristea.

San Juan eguna heltzerako, baina, alemanek atxilotu egin zuten Martin. Alemaniako enpresetan lanean hasi edota Espainiara itzuli; aukera horixe eman zioten. Amarengana etortzea erabaki zuen dudarik egin gabe.

Liburu pilarekin eta arropa gutxi batzuekin betetako bi maleta zahar eskuetan zituela iritsi zen Santiago zubira. Ama zuen zain han; ama, Jexux Ozaeta laguna eta Jose Maria Iciar La Salleko zuzendaria. Hark jarri zuen abala Guardia Zibilek Martini muga zeharkatu eta Andoainera joaten utz ziezaieten.

Izeba Mariarenera bildu ziren, Xabin Mujikaren ama zenaren etxera. Zazpi urte egin zituen Martinek han.

Urte zailak ziren. Martin, nazionalista, separatista eta gorria zen askorentzat; lehen ezagunak zituen askok ere nahiago izaten zuten beste alde batera begiratzea Martinen paretik pasatzerakoan.

Aitarena izan zen aroztegira joan zen lan eske, baina ez zuten hartu. Manuel Laborde zenak eman zion azkenean lana. Linternero lanetan ibili zen, lehioetako kristalak jartzen.

Soldadutzarako deia

Bi urte geroago, 1942an, soldadutzarako deia jaso zuen. Maiatzaren 10ean sartu zuten trenean –"animaliak bezala"– Marokora bidean, Tetuanera bidean zehazki. Kasualitatea: aita zerbitzatzen egon zen leku berera eraman zuten bera ere, leku eguzkitsu, lehor eta arrotz hartara. Andoaingo batzuk baziren han Martinekin batera: Mauricio Yarza, Felix Gauna, Joxe Igarategi zena... Hiru urteko egonaldi luzea izan zen; luzea eta gogorra. "Hijo de padre rojo-separatista" zioen fitxa jasan behar izan zuen tarte guzti hartan. Hala ere, *cabo primero* izatera iritsi zen.

Ihesbide moduan edo, Martinek gazte-gaztetandik zuen afizioari eutsi zion soldadutza garaian ere: idazteari. Eskutitz mordo bidali zizkien Andoaingo Mariano Arberas eta gainontzeko lagunei. Hark erakutsi egiten zituen nonbait, eta, itzultzerakoan lanean hasteko modua izango zuela agindu zioten Labordetik.

Don Manuel Laborderekin bildu zen itzuli bezain pronto. Hark esan zion berak idatzitakoak irakurriak zituela eta "si quería trabajar en la oficina ". Eta klaro, kanpoan kristalak jartzen ibili baino... alde ederra!

Venezuelarako prestaketak

Lanean zegoen, gustura. Hala ere, aitarengana biltzeko ideia bueltaka ari zitzaion buruan. Amak ere harako gogo zuen. 1945 urtea zen, II mundu gerraren amaiera, eta Espainiak itxiak zituen muga guztiak. Bi urte luze behar izan zituzten aitarekin elkartzeko. 1947an iritsi ziren ama-emeak, azkenean, Caracasera.

Aste batzuk lehenago Joseba anaia Sobiet Batasunetik Venezuelara ekartzea lortu zuen aitak, herrialde hark SESBen zuen enbaxadorearen bitartekaritzari esker. Hamar urte ziren ikusten ez zutela. Ezkondua eta Moskun jaiotako ume txikiarekin, Andonirekin, iritsi zen Caracasera.

Hainbeste urtetan banandua egon zen familia elkarrekin zen berriz ere. Elkarrekin eta askatasunean.

Askatasunaren aberria

Venezuela hitza askatasun hitzarekin estu lotuta agertzen da Martin Ugalderekin bizitzan. Gerra eta debekutik ihesi joan ziren herritik eta eskuak zabalik hartu zituzten herrialde hartan. Han egin zen senar, aita, kazetari eta idazle. Baina "iraganaz bizi baino etorkizuna egin nahi" zuela-eta itzuli zen Euskal Herrira, aberriaren deiari jarraiki.

Caracasera iritsi ordurako askatasun-haizea arnastu zuen Martinek. Aspaldi zen beldurrak, debekuak eta intolerantziak estutuak zituela, eta han, Venezuelan, sokaz lotu gabeko gizartea, jendea, topatu zuten: askatasuna zen. Venezuelan askatasuna zuen, idazteko askatasuna batez ere. Nahi zuena esan zezakeen letren bitartez, inolako zentsurarik gabe. Eta argi zuen horretan aritu nahi zuela aurrentzean, idazten. *La esfera* izeneko egunkarian jo zuen atea lehenengo aldiz. "Me gustaría escribir; soy periodista" esan omen zion hango zuzendariari, Andoainen Euskaldunaren partiduen kronikak idazten zituela gogora ekarrita. Baina lanbide hura zuela erakusten zuen agiririk ez zuen Martinek, eta, lanik egiten ez bazuen, agiririk ezin lortu!

Kazetari baino lehen, saltzaile

Egunkarietan lanik ezin egin eta Venezuelako Euzko Gaztedik argitaratzen zuen aldizkaria sortzeari eman zitzaion buru belarri. Gustora betetzen zuen ardura hori;

poltsikoan sosik ez zuen ordea. Lana topatu beharra zegoen. Maleta batean gai elektrikoak hartu eta Venezuelako barrualdean saltzaile lanetan hasi zen horrenbestez.

Mientras tanto fue creciendo la ciudad liburuko hitzaurrean kontatzen du nola behin Barquisimonto izeneko herri batean, kazetari senari eutsi ezinik, erosleari bere bizimoduari buruzko galderak egiten hasi zitzaion, bat bestearen atzetik. "Oiga usted", esan zion azkenean erosleak, "¡pero no se ponga usted a dolerse de mi suerte, no me compadezca amigo!, lo suyo es vender, no llorar conmigo, porque eso le trae mala suerte; no se preocupe de mí, usted me ofrece esto y lo otro y me dice lo bueno que es todo esto, lo que venda usted, y tiene que decirme que todo irá mejor, ¡que usted me está regalando la suerte!". Jakina, kable metro gutxi batzuk saltzea besterik ez zuen lortu lanbide hartan.

Euzko Gaztediko lagunen bitartez lortu zuen lana hobe suertatu zen: General Motorsek portura ekartzen zituen autoak zenbatu eta zerrendatzea zen bere eginbeharra. 1.200 bolivar lortzen zituen astean (24.000 pezeta inguru), ordurako dirutza handia, alajaina!

Baina kazetaritzaren harra barru-barruan sartuta zuen, ez zegoen osotara gustora. Gero, *Eusko-Gaztedi* aldizkariko zuzendari lanetan hasi zen, eta aldi berean, frankismoari eta euskaldunei buruzko artikuluak idazten zituen gero egunkarietara bidaltzeko. Euskal Etxeko batzordeko kide ere bazen ordurako. Halako batean Francisco Villanueva Paquito euskal jatorriko venezuelarrarekin egin zuen topo bertan. *Elite* aldizkariko zuzendari izendatu zutela esan zion eta ea berarekin lan egin nahi zuen. Venezuelen argitaratzen zen aldizkari grafiko bakarra zen, sona handikoa.

Han irabazi behar zuen jorjala General Motorsekoa baino txikiagoa zen dexentez. Kezkatua zuen horrek, eta etxean ere ondo pentsatu zezan gomendatu zioten. Hura zen, ordea, bere betiko bokazioa eta horrelako aukerak ez ziren noiznahi izaten. Aurrera egitea erabaki zuen.

Kazetal ibilbide luzearen hasiera

Paquito galbidean jarri zuen edariak handik gutxira. Aldizkariaren ardura Gurucega jabeak berak hartu zuen ondorioz, eta Martinek zuzendaritza. Handik zortzi hilabetera estatu kolpea izan zen Venezuelen (*Itzulera baten historian* lehen kapituluan agertzen dena). Gertakari hari buruz Martinek idatzitakoak 10.000 aleko tiradan zabaldu zituen *Elite* aldizkariak.

El Nacional egunkaritik deitu zioten orduan. Venezuelako egunkari garrantzitsua zen eta 2.000 bolivarreko jorjala agindu zioten gainera. Tentagarria zen eskaintza, aldatzekotan zen. Baina amore eman zuen Gureaceagak *Eliten* ere soldata bera jasoko zuela hitz eman zionean.

Garai hartarako ipuinak idazten hasi zen Martin. Izugarri lan pila egiten zuen: aldizkariko lanak, Euskal Etxeko ardurak, literatura... egunean bi zigarro pakete erretzen zituen. Estresak jota zegoen, lasaitasun apur bat behar zuen. (1952 urtea zen).

Halaxe erabaki zuen *Elite* aldizkarian baimena eskatu eta Estatu Batuetara ingelesa ikastera joatea. Handik erreportaia batzuk idatziko zituela agindu zion Guruceagari; hori zen tratua. Michiganen egon zen lehendabizi ikasten eta New Yorkeko euskaldun baten

etxean hartu zuen gero ostatua. Sei hilabete pasa egin zituen ingelesa eta literatura ikasten eta Venezuelara erreportaiak bidaltzen. Martinek berak aitortzen du handik idatzitakoak direla erreportaiak idatziaren eta ipuinaren arteko iraganbidearen hasiera.

Venezuelara itzulita, bi urte gehiagoz jarraitu zuen *Elite* aldizkarian. Ordurako etenik gabe idazten zituen ipuinak. Estatu Batuetara ere egin zuen beste bixitalditxo bat.

Ana Mariren arnasa

Handik bueltan esan zioten lagunek Euskal Etxera "neska berri" bat iritsia zela. Ana Mari zen, ordutik Martinen alboan egon dena. Garai hartarako Martin kazetari sonatua zen Venezuelen, baina inguruekoek, ez zituzten Martinen lorpenak berak nahi lukeen moduan estimatzen. Animoz baxu zegoen. Ana Marik eman zion aurrera jarraitzeko indarra.

Ezkongaietan gaixo jarri zen Ana Mari. Igande arratsalde batean euri jasa batek harrapatu zuen bikote gaztea, eta ordutik, sekulako burukominekin zebilen. Venezuelen ez zioten sendabiderik eman ahal izan, eta, Suizara joateko gomendioa egin zieten. Sei hilabete luze egin zituzten elkar ikusi gabe, harik eta Martinek Zurichera joatea erabaki eta bertan ezkondu ziren arte. 1955eko martxoaren 22a zen.

Zurichetik bakarrik itzuli zen Martin Venezuelara. Orduan hartu zuen *Elite* uztera bultzatu zuen eskaintza: Creole Petroleum Corporation petroleo enpresa handiak –22.000 laguni ematen zien lana– argitaratzen zuen *Nosotros* aldizkaria zuzentzea. Hamabost urte egin zituen etxe handi hartan. Ez zion, baina, *Eliten* kolaboratzeari utzi.

Creole-eko lana hobea zen. Soldata hobea zuen, baina batez ere, ipuinak idazteko denbora uzten zion. Gogoz ekin zion eginbehar horri. Eta jaso zuen ordaina: *El Nacional*-eko sari sonatua lortu zuen *Un real sueño sobre un andamio* ipuinarekin.

Saria jaso berri zela itzuli zen Anamari. Ordurako etxe berria zuten Ugaldetarrak, Venezuelen izan zuten lehena. Joseba anaiak hiru etxebizitzako eraikuntza diseinatu zuen, gurasoak eta bi semeen familiak batera egon zitezten. Aitak "Andoain" izena jarri zion euren etxeari. Non bizi zen galdetzen zioten bakoitzean, "Ni? Andoainen!", erantzuten omen zuen hark.

1956ko ekainaren 20ean jaio zen Unai, gaur egun EHUko Kimika fakultateko dekanoa dena. Handik urtebetera izan zuten bigarrena: Miren Itxaso. Bi haurrak artean txikiak zirela, Creolek Chicagon kazetaritza master bat egiteko aukera eman zion, Evanstongo Northwestern unibertsitate entzutetsuan. Caracasen zituen ardurak utzita –artean Euskal Etxeko lehendakaria zen–, Evanstonera lekualdatu ziren Ugaldetarrak. Gogorra egin zitzaion Martini 39 urterekin berriz ere ikasten hastean. Ana Marik asko lagundu zion, ordea, eta emaitza bikainak lortu zituen. Bi urtetan aise gainditu zuen masterra, iritzi publikoa eta masa-komunikazioan espezialdua. Gai horietan irakasle izan zen gero Venezuelako unibertsitatean.

Evastonetik itzulita, Creoleko argitalpenen buru izendatu zuten. Orduan hasi zen *El Farol* aldizkaria zuzentzen, Venezuelako kultur aldizkaririk sonatuena. Garai hartan,

etenik gabe idazten zituen ipuinak eta *El Nacional*erako erreportaiak. Horrezaz gain, kolaborazio lan ugari bidaltzen zituen batera eta bestera.

1964 urtean jaio zen hirugarren alaba. Miren Ainara.

Beste bost urte egin zituen Venezuelan. Umeak koxkortzen hasiak ziren eta euskaraz ikas zezaten ahalegin guztiak egiten zituzten etxean (Ana Marik Martinekin ikasi zuen euskaraz hitzegiten). Euskal Herrian lehenengo ikastolak ere sortuak ziren -Don Eugenio Arregik esan digu Andoaingoa zabal zezaten bidali zuela diru apur bat-, eta, euskarazko irakaskuntza bultzatze aldera hasi zen Martin ipuinak euskaraz idazten.

Aberriaren deia

Venezuelan seme-alabak euskaraz heitzeko ahaleginak egin arren, erabaki zuten Euskal Herrira itzultzea litzatekeela onena. Arrazoi kulturez gain, politikoez ere bultzarazi zituen Euskal Herrirako itzulbidea hartzea, baita sentimenduez eta gurasoen ereduak eta nahiak ere. Zaila izan zen, aberrira, aberri berria atzean utzita etortzeko erabakia hartzea.

Euskal Herriratu nahi, baina oztopo ugari: Euskal Etxeko lehendakari izana zen Venezuelan eta EAJko arduradun herrialde hartan; artean agintean ziren indar frankistentzat, etsaia. Andoaingo La Sallen zuzendari izan zuenari, Jose Maria Iciarri, eskutitz bat bidali zion Caracastik. Ordurako hura Irungo egoitzan zegoen. Galdetu zion Hendaiara joanez gero ea seme-alabek hegoaldean ikasteko aukera izango zuten. Hark baietz, askok egiten zutela hori bera.

Hala, bidali zituen emaztea eta seme-alabak Euskal Herrira. Ana Marirentzat gogorra izan zen: euskara Martinekin ikasia zuen, baina txiki-txikia zela eraman zuten Euskal Herritik kanpora; ez zuen aberria ezagutzen.

Ana Marik egin zituen tramiteak Madrilen Martini etortzen utz ziezaioten. Lortu zuen, baina baldintza bat jarrita: ez zuen "ezertan" sartu behar. Hondarribian jarri ziren bizitzen guztiak.

Erbesteko Jaurlaritzan kontseilari

Baina ezin hemen bizi eta Euskal Herriaren alde lan egin gabe egon. Itzuli berritan hasi zen EAJren *Alderdi* agerkaria zuzentzen. Baina buruzagi jeltzaleek esan zioten alderdi barruan nahi zutela bera, beharrezkoa zutela. Andrea eta seme-alabak zituela eta pentsatu egin behar zuela erantzun zien Martinek, ezin zezakeela berriz ere familia hautsi. Emazteak, baina, oniritzia eman zion, hura nahi bazuen, jarrai zezala lanean. Kontzientziak hala eskatzen ziolako baietza eman zuen. Joseba Rezola hil berria zela, haren ordezkoa bete zuen Eusko Jaurlaritzan, Leizaola Lehendakariak nahi bezala.

Bilera asko egin zituzten; nazioarteko herrialde askotan ere egon ziren bisitan, hauteskundeak nola antolatzen ziren ikusten. 1973 urtean Eibarren egindako bilera garrantzitsu baten biharamonean, hiru gizon etorri zitzaizkion etxera bila. Poliziak ziren. "Ya te dijimos que no te metieras en política" argudiatuta, kanporatu egin zuten.

Hiru urte egin zituen Donibane Lohitzunen. Baina ez zuen hargatik etsi. Lanean jarraitu zuen etenik gabe: politikagintzan buru-belarri sartua, *Alderdi* argitalpena zuzentzen, atsedetik gabe idazten. Garai hartakoak dira Martinek osatutako lehen historia lanak, Chillidari egindako elkarrizketa eta *Las brujas de Sorjin* eleberriaren argitalpena.

Franco hil ondoren, 1976an, itzuli zen Hondarribira. Harrezgeroztik idazteari eutsi zion, politikagintza aktiboa alde batera utzita. Alderdian belaunaldi berriak sartuak ziren, eta haien aldean, politikan aritzeko senik ez. Eragile izateari utzi, eta aholkulari eta lekuko izaten jarraitu zuen horrenbestez.

Bere jardun politikoagatik prentsa ofizialean aritzeko aukerarik ez zuen izan Euskal Herrira itzuli zenez geroztik. Hori zela eta gogoz ekin zion une horretan sortzeko bidean zen egunkari berri baten proiektuari, Deia-ñ hain zuzen ere. Egunkariaren lehen urtean zuzendariorde izan zen eta euskarazko sailaren arduradun. Nahiko lan izan zuen atal hura aurrera ateratzen, euskaraz inor gutxik irakurtzen zuela argudiatuta, atal garestia zela leporatzen baitzioten lankideek. "Euskaraz irakur dadin, idatzi egin beharko da ba!", erantzuten zuen Martinek lan haren beharraz erabat sinestuta.

Deia-a aritu zen urte berean zuzendu zuen Euskaltzaindiaren *Euskararen liburu zuria*.

1982 urtean Eusko Jaurlaritzako Euskarazko Arazoetarako zuzendari nagusi izendatu zuen Karlos Garaikoetxea lehendakariak. Bi urte egin zituen ardura hartan, harik eta euskal politikagintza erabat aztoratu zuen gertakaria jazo zen arte: EAJren haustura. Gogorra izan zen oso sehaskatik bertatik alderdi horretan hazi eta 38 urtez alderdikide aktibo izanda, EAJ uztea. Jaurlaritzatik irten, politikagintzari muzin egin eta kazetalgintza, literaturgintza eta euskalgintzari lehen baino irmoago lotzea erabaki zuen ondorioz.

Euskaldunon Egunkaria-ko arima

Ahalegin horretan sartu zen buru-belarri euskarazko egunkaria sortzeko ekimenean. Joxemi Zumalabe zena, Juan Mari Torrealdei eta beste askorekin batera, batean eta bestean, etenik gabe, aritu ziren sustapen lanetan, harik eta, zailtasunak-zailtasun, 1991ko abenduan *Euskaldunon Egunkaria*-ren lehen alea kaleratu zuten arte. Hasiera-hasieratik da Martin argitalpen horretako administrazio kontseiluko lehendakaria, eta hasieratik eskaini digu, hutsik egin gabe, bere iritzi-zutabea hamabostero.

Eta, oraindik ere, idazten jarraitzen du, egunero, Hondarribiko bere etxean, Bidasoak itsasoarekin bat egiten duen hartantxe. Hango uraren doinu goxoak xuxurlatzen dio goizero, egun berria jaio dela, lanean jarraitu beharra dagoela. Hala jarraitu baitu etenik gabe, lanean beti.